Euskararen balorazio kulturala

ETCHEGOIN, Pantxoa
Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria

Euskal Kultur Erakundea, 1990ean eraiki egitura bat da, hain zuzen euskara oinarritzat daukan kulturgintzaren bultzatzeko.

Lau diruztatzaile nagusi dauzka: Euskal kultura sostengatzen duen *Herriarteko Sindikata* (146 herri), Estatua (Kultura Ministerioa), Akitaniako Kontseilua eta Departamenduko Kontseilua.

2003az geroztik, Eusko Jaurlaritzatik ere diru-laguntza bat eskuratzen du mugaz bi aldeetako kultura harremanak bultzatzeko.

*Euskal Kultur Erakundea*k, gaur egun, 152 elkarte kide dauzka eta laguntzen ditu formakuntza, sorkuntza eta hedapena alorretan.

Lehen hamabost urteetan, *Euskararen Erakunde Publikoa* abiatu arte, euskararen sustatzen kulturgintzan bezainbat lan zuen.

Hona hemen, 11 puntutan, ekintza handienen laburpena:

1. Inkesta soziolinguistikoak: *Euskararen Jarraipena I eta II*

Inkesta hauek egin ziren 1991n eta 1996an euskararen egoera aztertzeko Euskal Herri osoan, 16 urtez goitiko herritarren artean.

Iparraldeari zegokionez, *Euskal Kultur Erakundea*k bere gain hartu zuen inkesta haien kudeaketa, inkesta-egileak AEK-koak zirelarik.

Euskera. 2012, 57, 1-2. 143-148. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hirugarren ikerketa batean ere parte hartu zuen: *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* ikerlana 1998-1999 urteetan eramana izan zen, 13-14 urtetako ikasleen artean.

Hiru inkesta haien bultzatzailea Eusko Jaurlaritza izan zen.

2. **Hiru liburuxka: *Euskara agerian***

Iparraldeko euskaltzainekin lan egin ondoan, *EKE*k plazaratu lehen liburuxkan, herrien izenak eta oinarrizko bide seinaletzari buruzko aholkuak ematen zituen; bigarrenean, zerbitzu publiko eta pribatuetako seinaletza landu zuen, eta hirugarrenean, herrietako kanpoko seinaletza publikoak nolakoa izan behar zuen.

3. **Erakusketa: *Euskararen hatsa***

Euskara, Euskaldunen hizkuntza (oinarrizko argitasunak) 8 orrialdeko dokumentu elebiduna.

4. **Topaketak: *Langues et cultures régionales***

Frantziako baita bere uharteetako *Hizkuntza eta kultura ezberdinen ihardunaldiak* EKEk hiru aldiz antolatu zituen Euskal Kultura sustengatzen duen Herrien arteko Sindikatarekin batera: 1995ean Uztaritzen; 2000an Saran eta Hendaian; 2007an Kanbon (azken topaketa honetan *Euskararen Erakunde Publikoa*k ere parte hartu zuen).

5. **Haurrentzat aldizkari bat: *Xirrixta***

*Euskal Kultur Erakundea*k hartu zuen lehenbiziko erabaki handia: haur literaturari lehentasuna emanen ziola. Tolosako *Milan* argitaletxearekin negoziaturik, *Xirrixta* aldizkariari sorrera eman zion 1992an.

Euskera 2012_1-2.indd 144 13/12/13 09:02

Bi urteren buruan, administratzaile batzuek galdeginik, *EKE*ek utzi zuen *Xirrixta*ren jabegoa eta Hendaian sortu zuten *Xirrixtazaleak* elkarte berriak hartu zuen haren kudeaketa; bestalde, gaztetxoentzat *Kometa* plazaratuz. Beste hiru urtez sekulako lanak erabilirik bi agerkari haiek bizirik atxikitzeko, harpidetza eskasez, azkenean elkartea desegin zuten.

Gazteluma – Iparraldeko 30 urtez petiko gazteak euskarazko liburuak idazten bultzatzeko, EKEk, burtsa (beka) baten sortzea proposatu zion Elkar argitaletxeko ordezkariari.

EKE, Elkar megadenda eta Erkalanean Fundazioa 2000. urtean adostu ziren *Gazteluma* lehiaketan onartua izan zen idazle gazteari hiru laguntza mota eskaintzeko: 3.000 euroko diru-laguntza, epaimahaiko hiru idazleren aholkuak eta liburuaren argitalpena. Orain arte, 5 idazle gazte lagunduak izan dira. Bitartean adina luzatua izan da: 40 urte arte.

6. Itzulpenak herriko etxeentzat

Herriko etxeak (udalak) *EKE*ren oinarrizko partaideak dira. Haien diru laguntzarik eta sostengu moralik gabe, ez zen *EKE*rik izanen.

Horregatik, EKEk lan handiak erabili zituen herrietako seinalakuntzaren itzulpenak segurtatzeko. Lanik sakonena, adibidez, Biarritzeko hiriarentzat egin zuen, gero Urruñaren aldi izan zen eta ondotik beste askorentzat.

Bestalde, Euskaltzaindiak galdeginik *Iparraldeko toponimoen bilketa, kudeaketa eta hedapena* ikerketa gotor bat burutu zuen, 2002an.

7. 1996-1997 urteak: bihurgune bat euskalgintzaren kudeaketan

Urte horietan, Garapen kontseiluak eta Hautetsien kontseiluak erabaki zuten Hizkuntza kontseilu baten sortzea.

EKE anitz inplikatu da gogoeta horretan, *Euskal Konfederazio*ko kideekin.

Euskera 2012_1-2.indd 145 13/12/13 09:02

Eztabaida biziak izan ziren jakiteko hizkuntza kontseilu horrek *EKE*ren adar bat izan behar zuenetz, edo aparteko egitura bat, ongi bereizteko euskara eta euskal kultura.

Azkenean, bigarren hautua egin zuten euskalgintzako aktoreek eta Hizkuntza Kontseilua ideki zen Uztaritzen, 2001eko urte amaieran.

Bizpahiru urte iraun ondoan, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzeko xedea aitzinatu zuten hautetsiek, egiazko hizkuntza politika publiko baten bidean ezartzeko.

Hau 2004an eta 2005ean sortu zen eta hortik landa, Euskal Kultur Erakundea osoki euskal kulturaren alorrari lotu zen, euskararena *EEP*ren gain utziz.

8. **Euskara toki berrietan sartu**

Euskara batere edo biziki guti entzuten zen tokietan, hala nola zentro komertzialetan, Baionako ospitalean, euskal kultura hurbiltzeko saioak antolatu zituen.

Azken hamar urte hauetan, Biarritzen, Hazparnen, Kanbon eta Donapaleun mediatekak eraikiak izan baitira, *EKE*k urtero proposamenak egiten dizkie eta euskarazko hitzaldiak, liburu aurkezpenak elkarrekin antolatzen dituzte, halaber, Donibane Lohizuneko Herriko etxearekin.

9. **Euskara ikusgarrigintzan eta teknologia berrietan**

*Euskal Kultur Erakundea*k betidanik euskararen presentzia azkarki bultzatu du, bai bere ekintza propioetan (ikus adibidez *www.eke.org* gunea), bai partaide dauzkan elkartekideei galdeginez ikusgarrien aurkezpenetan eta iragarkietan euskara ager dezaten.

10. ***Eleketa* programa**

Gaur egun, ahozko ondare sailean *Eleketa* programaren bitartez, adinetako jendeek beren biziko lekukotasuna euskaraz kontatzen dute, eta ondo-

Euskera 2012_1-2.indd 146 13/12/13 09:02

rioz, grabatutako film horiek gazteei euskararen transmititzeko euskarri pedagogikoak bihurtuko dira.

*Euskal Kultur Erakundea*k lekukotasun biltze, artxibatze eta hedatze lan handi bat abiatu zuen 2007an, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak lan honen jabegoa hartu zuelarik 2009an.

Eleketa programari esker, gaur arte, 180 lekukotasun bilduak izan dira Ipar Euskal Herrian, baita ere tratatuak, Baionako Artxibategian entzun-ikusteko gisan.

Lekukotasun hauek eskoletako haurrei eta publiko zabalari ezagutarazteko, hanbat ekintza eramaten ditu Euskal Kultur Erakundeak, hala nola bi erakusketa obratu ditu: *Amikuztarrak mintzo* eta *Itsasturiak.*

Itsasturiak erakusketak 2010ean Donibane-Lohizune/Ziburun bildu itsas munduko lekukotasunak eskaintzen dizkigu, lekukoen hautaketa *Itsas Begia* elkartearen eta *Itsas Misioaren* laguntzari esker egin zelarik.

11. *Hogei'ta* ekintza labela: gazteak eta euskal kulturaren biziberritzea

16-29 urte arteko gehienek euskararik ez baldin badakite ere (%18k bakarrik euskara ulertzen edo mintzatzen dute), gazte gehienek euskal kulturaren eta lurraldearen ikuspegi baikorra dute. Kantuari, dantzari, musikari edo kontzertuei esker, gazteek euskal kulturaren ezagupen bat eta praktika bat badute. Hortik, nortasun erreferentzia azkarrak ateratzen dituzte eta horrek beren garapena laguntzen du.

Euskal Kultur Erakundeak (*EKE)* gazteen kultura dinamiken erakusle izango diren sorkuntza eta adierazpide artistiko baita trukaketa esparruak lagundu nahi ditu *Hogei'ta* programaren bidez. Paraleloki, epe ertain eta luzerako, *EKE*k gogoeta bat abiatu nahi du bere partaideekin, ondarearen transmisiorako tresna iraunkorren sortzeari buruz.

Egitaraua bi publiko motari zuzentzen da :

Euskera 2012_1-2.indd 147 13/12/13 09:02

- 8-15 urte arteko haurrak eta nerabeak; haurrentzat, hautaturiko ekintzek euskal kultur nortasuna osatzen duten osagaien transmisioari lehentasuna ematen diote, sorkuntza saila baztertu gabe;
- 16 urtez goitikako gazteak

Gazteentzat, mota guzietako sorkuntzek lehentasuna ukanen dute, eta euskal kulturaren alor batzuk berrasmatzen ala berritzen dituzten egitasmoen eragile izateko ahalak eskainiko zaizkie.

Partaidetzak indartu: «Denen beharra badugu»

Euskararen kultura balorazioaren geroarentzat, zubiak eraikitzea baitezpadakoa da: alde batetik, erakunde publikoekin eta haien zerbitzuekin, bainan ere euskararen eta euskal kulturaren eragile guziekin (elkarte, artista, baliabide iturri direnak, etabar),; halaber, *Euskararen Erakunde Publikoa*rekin, eta nolaz ez Euskaltzaindia, *Iker* edo unibertsitateekin, ikerketak kultura elika dezan eta halaber, kulturak ikerketa.

Gaur egun, Euskal Kultur Erakundeak eginkizun berezi bat dauka: euskal kulturaren gehiago sarrarazteko politika publiko ezberdinetan (herriko etxeetan, herri-elkargoetan, erakundeetan,…) euskal kultura «dretxo amankomunean» sar dadin behin betikoz; adibidez, hezkuntza artistiko eta kulturaletako programetan, irakurketa publikoan, etabar.

Hizkuntza batek badu funtzio sinbolikoa, besteak beste adierazpen artistiko ezberdinetan murgiltzen dena. Oro har, euskal kulturaren geroa sorkuntzek baldintzatuko dute: gure gaitasun guziak bil ditzagun gure ondarearen biltzeko, haurrek, gazteek eta helduek hobeki ezagutu eta goza dezaten. Atzokoa biharkoan ikusi behar dugu!

Euskera. 2012, 57, 1-2. 143-148. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskera 2012_1-2.indd 148 13/12/13 09:02